

BAKOITZARI BEREA

Egunkari honek 'Demokrazia kontua' izenburupean Adolfo Muñoz ELAko ordezkariak eta Garbiñe Aranburu LABekoak sinatutako iritzi artikulua argitaratu zuen otsailaren 10ean. Zalantzan egon naiz bertan gure egitasmoez, baina gurekin kontrastatu gabe, egiten diren hainbat egiaztapeni erantzuna eman ala ez, esandakoak bere horretan utziz etorkizuneko gertaerek argituko dutelakoan. Baina demokraziaren oinarritzko printzipioa informazioaren gardentasuna ere bada eta, beraz, iritzi publikoak iritzia osatzeko informazio osoa jasotzeko eskubidea duen heinean, artikulua horri erantzuteko beharra sentitu dut.

Lan Harremanetarako Kontseiluaren egoera kritikoak kezkatuta, EA, EAJ eta EB-k legez besteko proposamen bat aurkeztu genuen Eusko Legebiltzarrean 2006ko urriaren 11n. Proposamen argi eta zehatza zen gurea: Legebiltzarrean Lan Harremanetarako Kontseiluaren eguneratzea eta erreforma aztertzeko lantalde bat osatzea, alegia. Ekimen haren testuingurua ere ezaguna da: Kontseiluko presidentek dimisioa aurkeztu berria zuen eta arazoak zeuden bere ordezkoa izendatzeko, legeak egoera hori aurreikusten ez duelako; ELAk, gainera, erakunde hori uzteko erabakia plazaratu zuen garai horretan. Testuinguru horretan jaiotzen da, hain zuzen, gure proposamena.

Aipaturiko iritzi artikulua sinatzaileek, ordea, Legebiltzarrean eskuhartzea sumatzen dute gure ekimenean eta kezka dute, hirukoa osatzen dugun taldeen aldetik, proposamen honen atzean, ezkutuan, Kontseilu honetako bozka sistema aldatzeko helburua ote dagoen, benetan hau horrela izango dela sinesten baitute. Eta gogoeta honetatik abiatuta, oinarririk gabeko hainbat egiaztapen egiten dituzte. Kritikak jasotzera irekita egon behar dugu politikariok baina arrazoituak egon daitezela eskatzeko eskubidea ere badugula uste dut, batez ere kritika horiek iritzi publikora zabaldu behar direnean, behar den iritzia informazio osoa ezagututa osa dadin.

Eusko Alkartasunak inoiz ez du esan lan harremanak gaiztotzearen arrazoia gizarte elkarrizketarako erakundeen blokeoa dela. Lan harremanez eta lan merkatuaz beste balorazio bat egiten dugu, funtsean lan harremanen egoera legediaren eta lege erreformen arabera dela uste dugulako, eta hori, behin eta berriz salatu dugun bezala, euskal erakundeetatik kanpo hartzen diren erabakien baitan dago. Eta bestalde gogorarazi behar dut gizarte elkarrizketarako erakundeen blokeoaz inoiz ez dugula hitz egin; horren froga dira Legebiltzarreko gure partehartzeak, eta legez besteko proposamen hau arrazoitzerakoan ere ez dugu blokeo hitza erabiltzen: Lan Harremanetarako Kontseilua, bere presidentearen dimisioaren ondoren eta ELAk erakunde uztea erabaki eta gero, une kritiko batean dagoela deritzogu.

EAK inoiz ez du uste izan aspaldian akordiorik eman ez denez akordioen aurkako bozak indargabetu behar direnik. Egia da Lan Harremanen Kontseiluan 1999ko urtarrilaren 15ean sinatu zela enpleguaren aldeko azken hitzarmena. Orditik zailtasun ugari izan dira akordioak lortzeko, baita elkarrizketa bera sustatzeko ere, baina guk inoiz ez diogu inori zuzenean eta zehazki egora horren ardura egotzi, une bakoitzean desadostasunak eragile ezberdinetatik

etorri direlako eta une bakoitzean arrazoiak ere ezberdinak izan direlako. Aldiz, gure proposamenaren arrazoa Kontseilu honen indefinizio egoeran datza, besterik gabe.

Legebiltzarrak lotura zuzena du bai Lan Harremanetarako Kontseiluarekin bai Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Kontseiluarekin; ondorioz, egungo egoeraren aurrean kezkatu azaltzeak ez luke inoren harridurarik sortu beharko, kontrakoa baizik. Halaber, bi kontseilu hauek Legebiltzarrean onartutako legez sortu eta arautzen direla gogorarazi behar da; beraz, jakin badakigu bozka sistemaren garrantziaz, besteak beste, egungo sistema gure bozkekin onartu zelako.

Erakunde hauek 1984an sortu ziren legez baina 1994an legeak aldatu eta erabakiak hartzeko bozka sistema berria arautu zen. Honela, kontseilu hauetan erabaki bat onartua izan dadin, erakundeko talde bakoitzak gehiengo osoz onartu behar du eta sindikatuetakako ordezkariak boto haztatua erabiltzen dute hauteskunde sindikaletan lortutako emaitzen arabera. Legea 1997an aldatu zen berriro ere eta hainbat talde bozka sistema aldatzen saiatu ziren orduan; Eusko Alkartasunak, ostera, sistemak bere horretan jarraitu behar zuela defendatu eta aldarrikatu zuen.

Geroztik sistema aldatzeko proposamenak ez dira falta izan Legebiltzarrean: 2001eko otsailean, 2002ko otsailean eta 2005eko urrian, data guzti hauetan, PPK bozka sistema aldatzeko proposatu du eta EA horren aurka agertu da beti, jakin badakigulako gizarte eragileen arteko harremanak bereziak direla, beren arteko indar metaketa bezala.

Gure ibilbideak agerian uzten duen moduan, EAren jarrera argia izan da zeharo, erakunde hauetan egun indarrean dagoen bozka sistemaren alde. Honexegatik, zur eta lur geratu naiz ELA eta LABeko ordezkarien artikulua irakurtzerakoan, gure egitasmoa sistema aldatu eta, are gehiago, "akordioen aurkakoen" bozak indargabetzea dela inolako oinarririk gabe leporatzen digutela irakurtzerakoan. Nori eta beti egungo sistemaren alde egin dugunoi! Hori bai ausardia. Faltsukeria, hobe esanda.

Funtsik ez duten honelako akusazioak, demokraziaren arauak bortxatu nahian omen gabiltzala eta abar, egin aurretik ELA eta LABeko ordezkariak hobe zuketan azken hilabeteotan bakoitzak esandakoa ongi aztertzea. Idazten hasi baino lehen hori egin balute, ikusiko zuketan nola Legebiltzarrean bozka sistemaren aldaketaren beharra aldarrikatu duen azkena, hain zuzen, Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Kontseiluko presidentea izan dela, 2006ko otsailaren 16an egin zuen agerraldian. Eta presidente hau, oso oker ez banabil behintzat, ELAK eta LABek proposaturikoa da. Bakoitzari berea.

Nekane Altzelai. Eusko Alkartasuneko legebiltzarkidea
2007ko otsaila